



ZUZENDARITZA PROIEKTUA

Igor Gutiérrez Ungo



2024-2028

Aurkibidea

1.	PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA	2
1.1.	Justifikazioa, aurkezpena eta zuzendaritza-taldearen identifikazioa.....	2
1.2.	Zuzendaritza-proiektuaren lehentasunak	3
1.3.	Prozesuaren deskribapena	3
2.	IKASTETXEAREN AZTERKETA DIAGNOSTIKOA	5
2.1.	Ikastetxearen testuingurua.....	5
2.2.	Ikastetxearen barne-analisisa	6
2.3.	Ikastetxearen kanpo-analisisa	10
3.	HELBURUEN DEFINIZIOA	12
4.	JARDUERA-ILDOEN ZEHAZTAPENA.....	13
5.	PROIEKTUA KOMUNIKATZEA.....	20
6.	PROIEKTUAREN JARRAIPENA.....	20

1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

1.1. Justifikazioa, aurkezpena eta zuzendaritza-taldearen identifikazioa

Beurkok lau ikasturte daramatza behin-behineko zuzendaritza-taldeekin. Merezimenduz hautaturiko azken zuzendaritzak 2017-2018 ikasturtean kargua hartu eta 2020an dimititu zuen, pandemiaren erdian. Geroztik, urtero talde berri bat izendatua izan da. Egonkortasun ezak ondorio kaltegarriak ekarri dizkio ikastetxeari, besteak beste:

- Proiektu eta plan estrategikoek ez dute jarraipenik.
- Informazioaren transmisio eskasa, batez ere ikasturte batetik bestera.
- Zuzendaritza-talde ahulak, aldaketak gauzatzeko zilegitasun falta.
- Familien atsekabea eta kexak.

Ozeano zabalean galdutako belauntzia bezala irudikatzen dugu gure zentroa: ur gainean mantentzen gara baina norabiderik gabe. Bada garaia Beurkok aurrean dauzkan erronkei ausardiaz hel diezaion. Horretarako, **parte hartzerik zabalenarekin** egin nahi dugu bidea, sinetsita baikaude gure ikastetxean balio handiko profesionalak ditugula eta konpromisoa jokatuko dutela. Era berean, ikasleak eta euren familiak ere aurrerapauso baten zain daudela somatzen dugu eta ziur gaude bidelagun izango ditugula.

Aldaketa garaia bizi du Hezkuntzak. Lege berriek ikastetxeen autonomia areagotzen dute eta malgutasuna ematen digute curriculumak gure errealitatera moldatzeko. Dударik gabe, abagune hori probestu nahi dugu irakasle on arteko eztabaida pedagogikoa sustatzeko, erabakiak **era demokratikoan** eta **hezkuntza-ebidentzietan** oinarriturik hartzeko.

Hona hemen 2024-2028 aldirako zuzendaritzan parte hartuko dugunok:

Kargua	Izen-abizenak	Mintegia
Zuzendaria	Igor Gutiérrez Ungo	Matematika
Ikasketaburua	Leticia Plaza Izurieta	Biologia eta Geologia
Idazkaria	Iñigo Bordagaray Aspiazu	Matematika
Zuzendariordea	Ana Irigoien Garitaonandia	Marrazketa
Ikasketaburu ondokoa	Aitor Alejandro Azkune	Euskara

Aurreko lankideok, Leticia Plaza eta Iñigo Bordagatay salbu, 2023-2024 ikasturteko zuzendaritza taldearen parte gara. Era berean, Ana Irigoien eta Igor Gutiérrez 2022-2023 ikasturteko zuzendaritza taldean ere egonak dira. Horrek bi gauza adierazten ditu: alde batetik, badugula eskarmentu nahikoa aurrera egiteko eta bestetik, konpromiso irmoa dugula Beurkorekiko.

1.2. Zuzendaritza-proiektuaren lehentasunak

Hauexek dira gure proiektuak ezarriko dituen lehentasunak:

- **Epe ertain eta luzerako estrategiak** definituko ditugu.
- **Irakasle guztien prestakuntza hobetzeko** bide berritzaileak urratuko ditugu.
- **Antolaketa prozedura eraginkor eta gardenak** ezarriko ditugu.
- **Parte hartze demokratikoa bultzatu** egingo dugu, ikasleetatik hasita.
- **Elkarbizitza positiborako ekintza aktiboak** garatuko ditugu, prebentzioan eta probentzioan oinarrituz.
- **Irakasleen arteko eztabaida pedagogikoa** sustatuko dugu, erabaki kurrikularrak hausnarketa partekatu baten ondorio izan daitezen.

1.3. Prozesuaren deskribapena

Zuzendaritza-proiektua egiteko prozesuan honako honako ibilbide hau jarraitu dugu:

- **Komunikazioa.** Hurrengo epealdirako zuzendaritzan egon nahi dugunok azaroko Klaustroan eta Eskola Kontseiluan proiektua aurkeztuko genuela adierazi genuen.
- **Eragileak identifikatu eta informazioa bildu.** Horrela egin dugu:
 - **Klaustroari** *Zure ikastetxea deskribatzen* inkesta betetzea eskatu genion, abenduan zehar (31 erantzun jaso ziren).
 - **Familiei** proiektua aurkeztuko genuela komunikatu eta *Familien iritzia* galdetegia osatzea eskatu genien abenduan (138 erantzun jaso ziren).
 - **Zuzendaritza-proiektua aurkezten dugunok** *Autoebaluazio konpetentziala* galdetegia osatu genuen.

- **Aholkularien batzordea** eratu genuen, honako partaide hauekin batera: aurtengo zuzendaritza-taldea, azken hiru urteetako zuzendaritzetako kideak, aurtengo orientatzaileak eta aurtengo BeAtarrak. Beraiekin batera, *Ikastetxeko informazio bilketa* galdetegia osatu genuen, ondo egiten duguna eta hobetu behar duguna identifikatzeko.
 - **Hezkuntza-Sailetako aplikazioetatik, Ebaluazio Diagnostikoetatik eta eskolako erregistroetatik** datu mordoa bilduz joan ginen, azaroa eta abendu bitartean.
 - **Jatorrizko eskoletako zuzendaritza-taldeekin** bildu ginen, elkar hobeto ezagutzeko eta proiektua aurkeztuko gurela komunikatzeko.
 - **Ondoan dugun Minas BHko zuzendaritza-taldearekin** ere bildu ginen, helburu berberarekin.
- **Diagnostikoa.** Informazio-bilketaren ostean, datuen analisia egin genuen. Analisi hori Aholkularien Batzordera eraman genuen. Ondoren, AMIA metodologia erabiliz, zaintzeko eta hobetzeko eremuak identifikatu genituen.
 - **Helburuak formulatu.** Zaintzeko eta hobetzeko eremuetatik abiatuta, helburuak formulatu genituen, *zer-nola-zertarako* egiturarekin. Era berean, helburuok SMART(S) ezaugarriak izatea bilatu genuen: *Specific* (zehatza), *Measurable* (neurgarria), *Achivable* (lorgarria), *Relavant* (esanguratsua), *Time based* (denboran mugatua) eta *Social* (soziala).
 - **Ekintzak proposatu.** Behin helburuak formulatuta, Klaustroarekin partekatu genituen, urtarilean. Eta galdetegi baten bitartez, helburuak lortzeko ekintzak proposatzeko astebeteko tarte zabaldu genuen (18 erantzun jaso ziren). Ondoren, ekintza guztiak baloratu, multzokatu eta lehentasunezkoak aukeratu genituen eta jarraipen eta lorpen adierazleak zehaztu.

2. IKASTETXEAREN AZTERKETA DIAGNOSTIKOA

2.1. Ikastetxearen testuingurua

Beurko BHI Barakaldoko izen bereko auzoan kokatuta dago. Honako hezkuntza-eskaintza hau dauka: **DBH** (3. eta 4. mailan CA talde bana dugu), **Batxilergoa** (Arte, Giza eta Gizarte Zientziak eta Zientzia eta Teknologia modalitateak) eta **Gela Egonkorra**. Institutua bi eraikinetan bereizita dago: Beurko Txikian, DBHko 1. eta 2. mailak daude; gainerako taldeak, Beurko Handian. 2023-2024 ikasturtean **680 ikasle** ditugu matrikulatuta: DBHn 523, Batxilergoan 147 eta Gela Egonkorrean, 10. Tamaina handiko ikastetxea, beraz.

Klaustroa **96 irakaslez** osatuta dago. Horietatik **%40** finkoa da: horien heren bat 60 urtetik gorakoa da eta beste heren bat 2023ko Lekualdatze Lehiaketan finkatu zen. Behin-behinekoen artean, berriz, ia bi heren berria da ikasturte honetan. Bestetik, 2 idazkari, 3 atezain, jantokiko eta garbiketako langileek osatzen dute ikastetxeko langileria.

Ikastetxearen **ISEK indizea ertain-baxua** da, baina ertain-altuko mugatik gertu. Gure ikasleen **%25ek** beka edota laguntzaren bat jasotzen du.

Jatorri atzerritarra duten ikasleak %4 baino ez dira, EAEn %13 diren bitartean. Hala ere, orain dela gutxi martxan jarri den Eskolatzeko Batzordetik ikasle atzerritarrek heltzen ari zaizkigu eta beraz, datozen urteetan ehuneko horrek gora egingo duela espero dugu.

Gure ikasleen **%85 adin egokian** daude; ehuneko hori asko aldatzen da mailaren arabera. Edonola ere, ez dago alde handirik Euskadirekiko. **Mailaz igarotzen ez diren ikasleen ehunekoa %5 eta %10 artean** dago DBHn, EAEko datuen pare eta Bizkaiko institutu publikoetan baino gutxiago. DBHko 2. mailaren kasuan, ehuneko hori asko jaitsi da azken ikasturtean, CA 3. mailako taldea egonkortzea lortu dugulako. Eskola-porrotaren (hau da, DBH amaitzen ez duten ikasleen) ehunekoa **oso baxua** da. **Eskola-absentismoa** ere oso baxua da, **%2koa**. **Hezkuntza Premia Bereziei** dagokienez, gure ikasleen **%10** zerrendetan dago, DBHn %11 eta Batxilergoan %3,4 direlarik.

Gauzak horrela, antzeko inguru sozioekonomikoa duten ikastetxeekin konparatuz, **gure ikasleen jatorrizko baldintzak hobeak direla esan genezake**. Euskarari dagokionez, ordea, baldintzak ez daude gure alde: familien **%2,7** bakarrik bizi da euskaraz.

2.2. Ikastetxearen barne-analisisa

BARNE-ANALISIRAKO TAULA		
ALDAGAIK	DATUAK ETA INFORMAZIO ESANGURATSUA	INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK
Plangintza estrategikoa	Proiektu eta Plan gehienak idatzi edo eguneratu gabe (IHP, Hizkuntza Proiektua, Harrera Plana...). Eginda daudenen jarraipenik ez. Zeharkako proiektu ia denak BeAtarren esku geratu dira.	INDARGUNEAK: IHP eta Zuzendaritza-proiektu zaharrak ditugu. Zuzendari eta ikasketaburu gazteak, aldaketak egiteko gogoekin. Aurreko zuzendaritzako kideak talde berrian. AHULEZIAK: Azken 3 ikasturteetan talde desberdin bat, salbuespenez izendaturik. Ez dugu modu sistematikoan ezta eskola-komunitatearen partaidetzaz egiten barne-analisisa, helburuen definizioa eta euren jarraipena. Pertsona gutxi batzuen menpe geratzen dira proiektu estrategikoak eta lan karga handia da.
Ikasleen komunikaziorako konpetentziak	<u>Euskara</u> Etxeko hizkuntza euskara %2,7 Erabilera irakasleekin ↓%20 Ikaskideen artean batere ez <u>Ingelesa</u> Emaizta baxuak EAErekin konparatuz eta Bizkaiko sare publikoarekin konparatuz ere. Ez dugu nazioartekotze proiekturik.	INDARGUNEAK: Giltzarri eta Kilika bertso-eskola atsedenaldietan. AHULEZIAK: Herri erdaldundua. Jarduera osagarri gutxi antolatzen ditugu. Ez dugu Hizkuntza Planik. Ez dago adostuta hizkuntza-konpetentziak nola txertatu ikasgai guztietan (hizkuntzen trataera integrala). Ez dugu nazioartekotze proiektuetan parte hartzen (Erasmus+ adib.).

Komunikazioa	Familiei egindako inkestan, Komunikazioa da kezka nagusia. Irakasleei egindako inkestan ere bai.	INDARGUNEAK: Baliabide digitalak eskura ditugu eta familia gehienek erabiltzen dakizkitez. AHULEZIAK: Komunikazio Plan baten falta. Webgune zaharkitua eta gutxitan erabilia dugu. Ez dugu sare sozialik. Eskola-emaitei buruz egiten dugun komunikazioa ez da adierazgarria.
Ikasleen ikas-irakas prozesua	Ez da eskola-emaite azterketa sakona egiten. Ondorioz, ez dago eskuhartzerik arazoak konpontzeko. Ez dugu ebidentzia zientifikoa erabiltzeko kulturarik irakas-prozesuak moldatzeko. Ez dugu ebaluazio hezitzailea egiten.	INDARGUNEAK: DBHn bi tutore ditugu ikasturte honetatik (>20 ik.). AHULEZIAK: Emaitzak aztertzeko prozedura falta. Ebaluaziorako informazioa jasotzeko epea eta prozedurak (txantiloak) ez du tutorearen lana errazten. Ebaluazio-saioetan ez dago denborarik eskuhartzean sakontzeko. Irakas-jardunaren inguruko hausnarketa falta. Ebaluazio-sistema oso heterogeneoa.
Aniztasunari erantzuna	Ez dugu Harrera Planik, are gutxiago ikasle etorkinen kasuan. JPPak aurten ezartzen hasi gara, iaz PIREak egiten hasi ziren lehenekoz.	INDARGUNEAK: Ikasleen aniztasuna, gelan erabiltzeko tresna. Legedi berria ezartzeko prozesua, aniztasunaren erantzuna indartzeko aukera. AHULEZIAK: Ez dago Harrera Planik. Ikasleen profila orain arte nahiko homogeneoa izan da, jatorri sozioekonomikoari dagokionez. Klaustro moduan ez gaude aniztasunerako prestatuta edota lan-karga bezala hartzen dugu.

Formakuntza eta berrikuntza	Ez dago Formakuntza Planik. Aurten, koordinazio-saioak programatu ditugu hilero. BeAtarren laguntzaz Irakurketa Plana martxan jartzen ari gara.	INDARGUNEAK: BeAtarren laguntza, irakasle berrien aldaketarako grina, irakasleen artean dagoen talentua. AHULEZIAK: Ez ditugu detektatzen zeintzuk diren irakasleen formakuntza-beharrak (guztionak ez dira berdinak). Irakasleon formakuntzekiko esperientzia txarrak eta ondoriozko interes falta. Irakasleen artean dauden talentuak ez ditugu ezagutzen edo partekatzen.
Antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa	Irakasleon arteko inkestan “koordinazio falta” arazo bezala identifikatu da. Aurten Beurko Txikiko “arreta ordutegia” martxan jarri dugu.	INDARGUNEAK: 60+ irakasle dezente ditugu zentroan kudeaketa eta antolamenduaz arduratu ahal izango liratekeenak. AHULEZIAK: Institutu handia, kudeaketa zaila. Koordinatzeko orduen falta. Zuzendaritza-funtzioen banaketa guztiz zehaztu gabe. Ordena gutxi lan-eremu fisiko eta birtualetan. Kudeaketa dokumental egoki baten falta.
Parte-hartze eredua	Zuzendaritza proiekturako iritzi-inkestak egin dira irakasle eta familiei. Webguneko iradokizun postontzia ez da erabiltzen. Proiektuak, Planak eta abar oso era bertikaleanosatzen dira.	INDARGUNEAK: Ekarpen interesgarriak egiten dituzten familiak, irakasleak eta ikasleak ditugu, gehiago parte hartzeko prest egon liratekeenak. Guraso Elkarte aktiboa dugu. AHULEZIAK: Parte hartzerako foro/momentu eskasak, legezko organoetatik aparte. Guraso Elkartean familia gutxik parte hartzen dute.

Bizikidetza	Irakasleei egindako inkestan hainbatetan aipatu dira giro txarra sortzen duten kideak. Ez dugu Elkarbizitza Planik. Ez dugu ikasleen parte hartze demokratikoa sustatzen. Aurten Jai Batzordea sortu da.	INDARGUNEAK: Zuzendaritzako kideek gero eta formakuntza eta esperientzia handiagoa bizikidetza arazoen kudeaketan. Aurtengo orientatzaileen inplikazioa. Klaustroko giroa hobetzearen alde dauden irakasleak. AHULEZIAK: Ikuspegi diziplinarioak pisu handia du oraindik. Ikasleekiko bizikidetza arazoei aurre egiteko adostasun falta. Ikasleen parte-hartze demokratikorako kulturarik eza.
-------------	--	--

2.3. Ikastetxearen kanpo-analisisia

KANPO-ANALISIRAKO TAULA		
ALDAGAIK	DATUAK ETA INFORMAZIO ESANGURATSUA	AUKERAK ETA MEHATXUAK
Ikasleen profil sozioekonomikoaren bilakaera	ISEK indizea jaitsi da. Ikasle etorkinak % 4,5. Eskolatze Batzordetik 7 ikasle berri aurtan (momentuz).	AUKERAK: Kulturartekotasuna gelan lantzeko aukera zuzena. MEHATXUAK: Dauzkagun baliabideekin edo antolakuntzarekin ikasle etorkinen beharrak ezin asetzea edo horretan ez asmatzea. Familia berriak behar beste inplikatzetik ez lortzea.
Nerabeen bizitza-ohituren bilakaera eta pandemiaren eragina	PASOS 2022 ikerketa: pantailen aurrean ematen duten denbora ↑, lo-denbora ↓, ariketa fisikoko denbora ↓, elikadura-kalitatea ↓...	AUKERAK: Curriculumean eta eskolaz kanpoko ekintzetan egoera konpentsatzeko estrategiak txertatzea. Familiekin formakuntzak egiteko bidea urratzeko aitzakia. MEHATXUAK: Ikasleen errendimendu-maila jaitea. Ziberbullying kasuak areagotzea. Gatazkak ikasleekin mugikorren erabilera desegokiagatik.
Eskoletarako eta gazteentzako udal baliabideak	Bitartean eta Arratsaldeko Tutoretza (AIZU!) programak ditugu. Giltzarri Elkarteko eskuhartzea.	AUKERAK: Ikaslearen heziketa-prozesuan ikuspegi anitzak izatea. Gure IHPn integratzea edo definitzen laguntzea. Eskola eta herriaren arteko zubilana erraztea (proiektu komunitarioak, adibidez). MEHATXUAK: Eskura dauden baliabideak ez ezagutu edo ez aprobetxatzea. Beraiekin koordinazio egokia ez lortzea.

Harremana jatorrizko eskolekin	Ekainean eskoletako LH6ko tutoreekin bilerak egiten ditugu. Ibaiben “Talde Elkarreragileak” programan parte hartzen dugu. Aurten zuzendaritzekin bilera bana izan dugu.	AUKERAK: Institutura datozen ikasleen beharrak ezagutzea. Eskolatik Instituturako trantsizioa egokitzea. Eskolen praktika eta ereduetatik ikastea. MEHATXUAK: Informazio-trukea eraginkorra ez izatea. Bilerak mantentzeko ohitura galtzea.
Hezkuntza-Lege eta Curriculum berriak	17/2023 Hezkuntza Lege onartu berria Curriculum berria aplikatzen Hautazkoak maila guztietan Proiektu Komunitarioa maila guztietan-	AUKERAK: Berrikuntza eta hobekuntzarako palanka. Eskola gizartera zabaltzeko aukera gehiago. MEHATXUAK: Aldaketarako erresistentziak sortzea. Formakuntza faltagatik adostasunik ez lortzea edo erabaki okerrak hartzea. Barne-antolaketarako zailtasun gehiago ekartzea (ordutegiak, espazioak...). Proiektu Komunitarioari baliorik ez ematea.

3. HELBURUEN DEFINIZIOA

Zaintzeko eremuak (indarguneak eta aukerak) eta hobetzeko eremuak (ahulguneak eta mehatxuak) aztertuta, honako helburu hauek formulatu ditugu, **ZER**, **NOLA** eta **ZERTARAKO** galderei erantzuten diotenak.

H1	Beharrezkoak diren plangintza estrategikorako dokumentuak sortu edo eguneratu, eskola-komunitate guztiaren parte hartzea bermatuz, ikastetxeak dituen erronkak identifikatu eta beroriei aurre egiteko.
H2	Irakaskuntza prozesuak eguneratzeko eraginkorra izango den formakuntza-ibilbide bat diseinatu, irakasleen formakuntza-beharrak identifikatuz, ikasleen aniztasunari eta beharrezkoen modu egokian erantzuteko.
H3	Ikastetxearen eguneroko funtzionamendua hobetu, antolakuntza eta koordinaziorako prozedura gardenak ezarriz, eta tresna digitalak baliatuz, baliabideak ondo aprobetxatu eta lanean eraginkorrak izateko.
H4	Familien eta bereziki ikasleen parte hartzea bultzatu, zuzenean eragiten dieten erabakietan zein ikastetxeko erabaki estrategikoetan, parte hartze hori erraztuko duten bide, gune eta uneak zehaztuz, beraien atxikimendua areagotzeko.
H5	Bizikidetza hobetzeko ekintzak garatzea, ikuspegi hezitzailetik abiatuz, institutua denontzako espazio segurua eta errespetuzkoa izan dadin.
H6	Curriculum berriak eskatzen dituen egokitzapenak gauzatzea, irakasleen arteko eztabaida pedagogikoa sustatuz, ikasle guztiei erantzun egokia eman ahal izateko.

Helburuok zuzendaritza funtzioaren **marko konpetentzialarekin** duten erlazioa 20. orrialdetik aurrera zehazten da, agente-koadroan.

Nabaria denez, **Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoekin** lotuta daude:

1. **Lidergo pedagogikoa eta hezkuntza eraldaketa.** Ildo horrekin lotuta dago H1 helburua, batik bat.
2. **Curriculuma eta ebaluazioa.** Ildo horrekin lotuta daude H2 eta H6 helburuak, batik bat.
3. **Eskola inklusiboa, bizikidetza eta ongizatea.** Ildo horrekin lotuta daude H2, H5 eta H6 helburuak, batik bat.

Guretzat, helburu guztiak funtsezkoak dira baina horien artean bi dira **lehenetsi beharrekoak**, **H1** eta **H3**, alegia. Izan ere, **plangintza estrategikoa** eta **barne-funtzionamendua** hobetzea ezinbestekotzat jotzen ditugu gainontzeko helburuak lortzeko. Beraz, 2024-2028 agintaldian zehar bi helburu horiek gure jarduna gidatuko dute, batez ere lehenengo ikasturtean.

4. JARDUERA-ILDOEN ZEHAZTAPENA

Jarraian, helburu estrategikoak lortzeko **ekintzak** zehaztu ditugu. Horiekin batera **jarraipen adierazleak** definitu eta denboran zehar antolatuko ditugu. Hori guztia honako taula hauetan aurkezten da.

1. helburua. Beharrezkoak diren plangintza estrategikorako dokumentuak sortu edo eguneratu, eskola-komunitate guztiaren parte hartzea bermatuz, ikastetxeak dituen erronkak identifikatu eta beroriei aurre egiteko.					
EKINTZA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
		24-25	25-26	26-27	27-28
1.1. IHP eguneratu	· IHP eguneratzeko batzordea sortu da	X			
	· Eskola-komunitate guztiaren parte hartzea jaso da	X			
	· IHP berria onartu eta zabaldu da	X			
1.2. Harrera Plana sortu	· Harrera Plana idazteko batzordea sortu da	X			
	· Harrera Planaren zirriborroa eskola-komunitateari zabaldu zaio, ekarpenak egiteko	X			
	· Harrera Plana onartu eta zabaldu da	X			
1.3. Komunikazio Plana sortu	· Komunikazio Plana idatzi da, IPD kontuan hartuz	X			
	· Komunikazio Plana eskola-komunitateari zabaldu zaio	X			
1.4. Hizkuntza-Proiektua eguneratu	· Hizkuntza-Proiektua eskola-komunitateari zabaldu zaio	X			
1.5. IPD eguneratu	· IPD eguneratu da eta eskola-komunitateari zabaldu zaio	X			
	· Sortu diren dokumentu guztiak berrikusi dira		X	X	X
1.6. Jatorrizko eskolekin, inguruko BHlekin eta udal-erakundeekin harremanak sendotzeko bilerak egin	· Ikasturtero antolatu dira bilerak.		X	X	X

2. helburua. Irakaskuntza prozesuak eguneratzeko eraginkorra izango den formakuntza-ibilbide bat diseinatu, irakasleen formakuntza-beharrak identifikatuz, ikasleen aniztasunari eta beharrezaneiei modu egokian erantzuteko.

EKINTZA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
		24-25	25-26	26-27	27-28
2.1. Zentroko irakasleon praktika onak zabaltzeko saioak antolatu	· Hilabeteen behin praktika on bat zabaldu da	X	X	X	X
2.2. Analisi bat egin irakasleen formakuntza beharrak identifikatzeko	· Irakasle bakoitzaren formakuntzaren inguruko analisia egin da, indarguneak eta ahuleziak identifikatuz.	X	X	X	X
2.3. Formakuntza Plana sortu	· Klaustroan Formakuntza Plana eztabaidatu eta onartu da	X			
	· Onartutako ibilbideak IUPeen bere isla dauka		X	X	X
	· Ikasturteko programazioetan, ikasleen aniztasunari eta beharrezaneiei modu egokian erantzuteko moldaketak egin dira.		X	X	X
2.3. Jasotako formakuntzen eraginkortasuna neurtzeko tresnak sortu eta aplikatu, irakasle zein ikasleen ikuspuntutik.	· Formakuntzen eraginkortasuna neurtzeko tresnak sortu dira.	X			
	· Formakuntzen eraginkortasuna neurtzeko tresnak aplikatu dira.		X	X	X

3. helburua. Ikastetxearen eguneroko funtzionamendua hobetu, antolakuntza eta koordinaziorako prozedura gardenak ezarriz, eta tresna digitalak baliatuz, baliabideak ondo aprobetxatu eta lanean eraginkorrak izateko.

EKINTZA	JARRAIKEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
		24-25	25-26	26-27	27-28
3.1. FAQ dokumentu bat sortu irakasleentzat eta beste bat familientzat.	· FAQ dokumentua sortu eta partekatu da.	X			
	· FAQ dokumentua ebaluatu eta eguneratu da.		X	X	X
3.2. Irakaslearen ordutegiak zehazteko kronograma eta irizpideak deskribatzen duen dokumentua sortu eta publiko egin.	· Ordutegiak zehazteko irizpideak finkatzen duen dokumentua sortu da eta Klaustroaren artean zabaldu da.	X	X	X	X
	· Dokumentuaren azken bertsioa egin da, Klaustroaren ekarpenekin, eta zabaldu da.				
3.3. Zuzendaritzako kideen funtzioen banaketa adostu.	· Zuzendaritzako kideen artean funtzioen analisirako bilera egin da.	X			
	· Funtzioen banaketa zehazten duen dokumentua sortu da.	X			
3.4. Irakaslearen arteko koordinazio-foroak erabaki eta horietarako ordutegia zehaztu.	· Zuzendaritzak koordinazio-foroak zehaztu ditu eta norberaren egutegian txertatu ditu, DAEn bitartez.	X	X	X	X
	· Koordinazio-foroen funtzionamendua ebaluatu da ekaineko Klaustroan.	X	X	X	X
3.5. Zaintza-koaderno eta jardura osagarriak egutegi digitalaren bidez kudeatu.	· Calendar sortu, agertu nahi duguna zehaztu da eta iraileko Klaustroan azaldu da.	X			
3.6. Irakasleentzako site bat sortu, egunerokoa jarraitzen laguntzeko	· Site-a sortu eta Chromen lehenetsitako orrialde moduan finkatu da eskolako ordenagailu guztietan.	X			
3.7. Kudeaketa eta antolakuntza prozeduren kronogramak eta diagramak sortu	· Kudeaketa eta antolakuntza lanak aztertzeko bilera egin da.	X			
	· Ikasturteko kronograma egutegi digitalean txertatu da. Prozeduren diagramak sitean argitaratu dira.	X	X	X	X

4. helburua. Familien eta bereziki ikasleen parte hartzea bultzatu, zuzenean eragiten dieten erabakietan zein ikastetxeko erabaki estrategikoetan, parte hartze hori erraztuko duten bide, gune eta uneak zehaztuz, beraien atxikimendua areagotzeko.

EKINTZA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
		24-25	25-26	26-27	27-28
4.1. Ikasleen parte hartzerako foroak sustatu	· Ikasleen proposamenak, kexak, zalantzak eta abar bideratzeko prozedura zehaztu da.	X			
	· Ikasturte hasieran, ikasleei prozedura azaldu zaie.	X	X	X	X
4.2. Guraso Elkartarekin sistematikoki bildu	· Hiruhileko bakoitzaren hasieran, Guraso Elkartarekiko bilera egin da.	X	X	X	X
	· Bileraren laburpena guraso guztiei bidali zaie.	X	X	X	X
4.3. Webgune berria sortu eta familien proposamenak, kexak, zalantzak eta abar jasotzeko postontzi digitala gaitu	· Webgune berria martxan jarri da, postontzi digitala eta guzti.	X			
4.4. Familientzako formakuntza-saioak antolatu IGE-rekin elkarlanean	· Ikasturte hasieran, familientzako formakuntza-programa zehaztu eta webgunean argitaratu da.	X	X	X	X

5. helburua. Bizikidetza hobetzeko ekintzak garatzea, ikuspegi hezitzailetik abiatuz, institutua denontzako espazio segurua eta errespetuzkoa izan dadin.

EKINTZA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
		24-25	25-26	26-27	27-28
5.1. Tutoretza-planak berriztatu eta bizikidetza positiborako jarduerak txertatu (Bizikasi ekimenekoak, adituen edota kolektibo ezberdineko pertsonen bisitak...)	· Tutoretza-Planak berriztatu dira	X	X	X	X
	· Tutoretza-Planetan bizikidetza positiborako jarduerak txertatu dira		X	X	X
5.2. Beurko Txikiko jolasgaraiak dinamizatzeko plan bat egin	· Patioaren dinamizazio batzordea sortu da.	X			
	· Patioaren erabileraren diagnostikoa egin da, ikasleen parte hartzearekin.	X			
	· Patioa dinamizatzeko proposamenak jaso dira eta plana garatu da.	X			
	· Plana martxan jarri eta ebaluatu da.	X	X	X	X
5.3. Neurri zuzentzaileen bilduma (aplikazio-gida) sortu, irakasle bezala bizikidetza arazoei era adostu batean aurre egiteko.	· Neurri zuzentzaileen bilduma sortu da.	X			
	· Bilduma partekatu da irakasle, ikasle eta familiekin, ekarpenak egiteko.	X			
	· Zuzendaritzak azken bertsioa argitaratu du eta AJAn txertatu da.	X			
5.4. Irakasleok gelan giro positiboa lortzeko formakuntza bilatu eta eskaini	· Formakuntza bilatu da		X		
	· Formakuntza Planean txertatu da		X		
5.5. Gela Egonkorra ikastetxeko bizitzan gehiago integratzea	· Gela Egonkorreko irakasleekin bilera egin da	X			
	· Gela Egonkorreko ikasleak gehiago integratzeko plangintza zehaztu da	X			
5.6. Ikasle Laguntzaileen programa abiatu	· Ikasle Laguntzaileen inguruko beste zentroetako esperientziak aztertu dira	X			
	· Programan parte hartzeko deia ikasleei luzatu da		X		
	· Programa martxan jarri eta ebaluatu da		X	X	X

6. helburua. Curriculum berriak eskatzen dituen egokitzapenak gauzatzea, irakasleen arteko eztabaida pedagogikoa sustatuz, ikasleei erantzun egokia eman ahal izateko.

EKINTZA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
		24-25	25-26	26-27	27-28
6.1. Arlo bakoitzaren didaktikan erreferente diren irakasle, erakunde eta abarren lana mintegika aztertzea.	· Mintegi guztietan, arloaren didaktikaren inguruko hausnarkera saioak burutu dira	X	X	X	X
	· Saio horietan ikasitakoa gelara eramateko estrategiak zehaztu eta praktikara eraman dira, eta praktika horien balorazioa Urteko Memorian islatu da.		X	X	X
6.2. Arlo bakoitzeko oinarritzko jakintzak sakonago zehaztu, mailaz-maila antolatu eta gelara eramateko orientabideak ezarri.	· Oinarritzko jakintzak zehaztu eta mailaz-maila sekuentziatzeko lan saioak egin dira, mintegika zein eremuka.	X			
	· Oinarritzko jakintzak gelan praktikara eramateko orientabideak ezarri eta jaso dira.		X		
6.3. Arloz arlo gelan erabiltzeko baliabide didaktikoen bilduma sortzea Mintegi guztietan.	· Mintegika, zaintzetarako material orokorra prestatu eta antolatu da (irakurketak, galdetegiak, fitxak...)	X			
	· Ikasturtearen edozein momentutan iristen diren ikasleentzako aurrezagutza frogak sortu dira ikasgaia, eremu edota mintegi guztietan.	X			
	· Ikasturtean zehar irakasleok sortutako baliabide berrerabilgarrien gordailu digitala sortu da.		X		
6.4. DBH-ko lehenengo zikloan martxan ipinitako eremuen funtzionamenduaren inguruan hausnarketa egin hobekuntza proposamenak jasotzeko.	· Eremuka lan egiten duten irakasleen arteko lan taldeak eremuen funtzionamenduaren inguruko hausnarketak eta hobekuntza proposamenak egiteko bildu dira (ordutegia DAE-n jasota dago).	X	X	X	X

5. PROIEKTUA KOMUNIKATZEA

Zuzendaritza-proiektu hau zabaltzeko, ondoren azaltzen den prozesua jarraituko da, **nork**, **nori** eta **nola** zehaztuz:

- **Urtarrilaren 26an**, **zuzendaritzarako hautagaiak** **Klaustroari e-mailez** jakinaraziko dio proiektua aurkeztu duela eta prozesua martxan dagoela, 2023eko abenduaren 15eko Aginduak adierazitako baldintzetan.
- **Otsailaren 2an**, **ikastetxeko zuzendariak** hautagaiei buruzko Hezkuntzako Lurralde Ordezkararen behin-behineko ebazpena zabalduko du, **eskola-komunitate osoarentzat, iragarki-taula ofizialean**.
- **Otsailaren 16an**, **ikastetxeko zuzendariak** hautagaiei buruzko Hezkuntzako Lurralde Ordezkararen behin-behineko ebazpena zabalduko du, **eskola-komunitate osoarentzat, iragarki-taula ofizialean**.
- **Egun berean**, **ikastetxeko zuzendariak** zuzendaritza-proiektuaren ale bat irakurtzeko jarriko du **irakasle-gelan (irakasleentzat)** eta beste bat **zuzendariaren bulegoan (eskola-komunitatearen gainontzeko kideentzat)**. **Hezigune** bidez emango du horren berri.
- **Otsailaren 28an**, **ikastetxeko idazkariak** ez-ohiko **Klaustro** eta **OOG** bilerak deituko dira, proiektua azaltzeko, proposaturiko zuzendaritza-taldea aurkezteko eta sortutako galderei erantzuteko. Bilera horietan bertan Hautaketa Batzordean parte hartuko duten Klaustroko eta OOGeko ordezkariak aukeratuko dira.
- **Maiatzaren 3an**, **ikastetxeko zuzendariak** hautatutako pertsonari buruzko Hezkuntzako Lurralde Ordezkararen ebazpena zabalduko du, **iragarki-taula ofizialean**. Era berean, **Hezigune bidez** emango dio horren berri **eskola-komunitate osoari**.

6. PROIEKTUAREN JARRAIPENA

Jarraian, proiektuaren lorpen-adierazleak definitu eta agintaldian zehar antolatu dira. Informazio guztia aginte-koadroan ageri da.

2024-2028 AGINTE KOADROA

	Konpetentziekin lotura	Helburuak	LORPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
				24-25	25-26	26-27	27-28
H1	K1.1. Hezkuntza komunitatearen eta gainontzeko eragileen beharrak, iritziak eta itxaropenak jaso eta analizatu. K1.2. Ikastetxeko indarguneak eta hobekuntzarako esparruak identifikatu, testuingurua, hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoak eta hezkuntza-araudia kontuan hartuta. K1.3. Hezkuntza komunitatearen parte hartzearekin epe-ertaineko helburuak adostu eta zehaztu. K1.4. Zehaztutako helburuak hedatu, komunikatu, berrikusi eta eguneratu. K9.3. Ikastetxeko komunikazio bide eraginkorrak ahalbidetzeko barneko nahiz kanpoko komunikazio plana eratu, jarraipena egin eta doitu. K10.1. Hezkuntza-sareetan zein beste ikastetxeekin lankidetzan aritu, ezagutza eta esperientzia partekatu. K10.2. Ikasleen ibilbideko ikastetxeekin koordinatu, harreman sendoak izan eta trantsiziorako planak zehaztu. K10.3. Gizarte-inguruneako erakunde, elkarte, giza-eragile, pertsonekin... ezagutza partekatu, kolaboratu eta heziketaren alde formala zein ez-formala uztartu.	Beharrezkoak diren plangintza estrategikorako dokumentuak sortu edo eguneratu, eskola-komunitate guztiaren parte hartzea bermatuz, ikastetxeak dituen erronkak identifikatu eta beroriei aurre egiteko.	Dokumentuak sortu eta berritzeko prozesuan mintegien %80-ak ekarpenak egin ditu.	X			
			Plangintza estrategikorako dokumentuak klustroan zein OGG-n onartuak izan dira gehiengoarekin.	X			
			Onartutako plangintza estrategikorako dokumentuak eskola-komunitate osora hedatu eta komunikatu dira eta webgunean eskuragarri daude.	X			
			IHP-aren ardatzak ikas-prozesuetan integratu dira urteko programazioen bidez.	X	X	X	X
			Plangintza estrategikorako dokumentuen errebisioa eta eguneratzea ikasturtero burutu da.		X	X	X
			Ikasleen ibilbideko eskolekin, inguruko BHI-ekin eta udal-erakundeekin bilerak urtero egin dira.	X	X	X	X

2024-2028 AGINTE KOADROA

	Konpetentziekin lotura	Helburuak	LORPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
				24-25	25-26	26-27	27-28
H2	K2.1. Ikasleen ikaskuntzak hobetzeko berrikuntza-aukerak identifikatu eta helburuak zehaztu. K2.3. Lankidetza, talde-lana, praktikei buruzko hausnarketa eta lanerako espazioak eta mekanismo egokiak finkatu. K2.5. Ebidentzietan oinarritutako praktikatik abiatuta ikas-prozesuen planifikazioa, hedapena, ebaluazioa eta egokitzapena lideratu. K3.1. Ebidentzietan oinarritutako praktikak abiatuta ikas-prozesuen planifikazioa, hedapena, ebaluazioa eta egokitzapena lideratu. K4.2. Pertsonak errekonozitu, inspiratu eta motibatu. K4.4. Hezkuntza-komunitateko pertsonen ezagutzaren transmisioa bermatu K5.2. Aniztasunari erantzuteko eta desberdintasunak orekatzeko, inklusioaren printzipioak egunerokotasunean kontuan hartzen direla egiaztatu K8.1. Elkarrekin ikasten duen komunitateko kideen garapenerako plana eraiki, hedatu eta doitu. K8.2. Komunitatearen ezagutza, berrikuntza eta ikerketa pedagogikoekin lotutako hobekuntzak inplementatzea ahalbidetu. K8.3. Irakasleen etengabeko garapen profesionalean ibilbide propioa bultzatu eta parte-hartze aktiboa indartu.	Irakaskuntza prozesuak eguneratzeko eraginkorra izango den formakuntza-ibilbide bat diseinatu, irakasleen formakuntza-beharrak identifikatuz, ikasleen aniztasunari eta beharrezaneiei erantzuteko.	Irakasleen formakuntza beharrak identifikatzeko estrategiari jarraituz, irakasleen %80ak bete ditu helburu horrekin erabilitako galdetegiak.	X	X	X	X
			IUP-ean, irakasleen beharretan oinarritzen den formakuntza plana jaso da.	X	X	X	X
			Lankidetza eta talde-lana sustatzen dituzten lanerako espazioak ireki dira, ikasturtean 3-5 autoformakuntza saio burutu direlarik.	X	X	X	X
			Mintegi guztien urteko programazioetan ikasleen aniztasunari eta beharrezaneiei erantzuteko hartuko diren neurriak jaso dira.	X	X	X	X

2024-2028 AGINTE KOADROA

	Konpetentziekin lotura	Helburuak	LORPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
				24-25	25-26	26-27	27-28
H3	K2.3. Agertoki, aldaketa eta behar berrien aurrean malgua den antolaketa-egitura zehaztu. K2.4. Baliabideen, denboraren eta espazioen antolaketa eta esleipenerako irizpideak adostu, publiko egin eta horren arabera jokatu. K2.5. Lankidetza, talde-lana, praktikei buruzko hausnarketa eta lanerako espazioak eta mekanismo egokiak finkatu. K4.1. Pertsonak ezagutu euren talentuaren eta gaitasunen arabera erantzukizunak banatu. K6.4. Pentsamendu kritikoz jokatu, informazioa modu objektiboan eta hausnartuan aztertu eta erabaki informatuak hartu.	Ikastetxearen eguneroko funtzionamendua hobetu, antolakuntza eta koordinaziorako prozedura gardenak ezarri, eta tresna digitalak baliatuz, baliabideak ondo aprobetxatu eta lanean eraginkorrak izateko.	Zuzendaritza kideen funtzioen banaketa adostu, idatziz jaso eta ikastetxearen organigraman txertatu da.	X			
			Koordinazio-foroen funtzionamendua adostu da eta ordu banaketa irakasle bakoitzaren DAE-an zehaztu da.	X	X	X	X
			Tresna digitalen erabilera zabaldu da: - Zaintzak driven bidez kudeatzen dira - Calendarren zehazten da ikastetxean burutzen diren jardueren antolamendua (irteerak, tailerrak, bilerak...) - Site berria martxan dago	X	X	X	X
			Kudeaketa eta antolakuntza prozeduren nondik norakoa zehazten duten kronogramak/diagramak sortu eta irakasleen sitean publikatu dira: - FAQ dokumentua - Ordutegiak zehazteko irizpideak - EKE-ak antolatze prozedura - Eskaintza akademikoa egiteko prozedura - Ebaluazio eta promoziorako prozedura - Proiektuen jarraipena	X			

2024-2028 AGINTE KOADROA

	Konpetentziekin lotura	Helburuak	LORPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
				24-25	25-26	26-27	27-28
H4	K3.4. Hezkuntza prozesuetan familien inplikazioa bilatu. K4.3. Pertenentzia eta inplikazio sentimendua garatzeko komunitateko kideen artean konfiantzazko harremanak ahalbidetu. K9.1. Ikasleak euren ikaskuntza prozesuaren protagonista izan daitezen bideak ahalbidetu. K9.3. Ikastetxeko egituretan, bakoitzari dagokion heinean, eskola-komunitateko kide guztien parte-hartzea aktibatu. K9.4. Komunitateko kideen arteko sareak ahalbidetu.	Familien eta bereziki ikasleen parte hartzea bultzatu, zuzenean eragiten dieten erabakietan zein ikastetxeko erabaki estrategikoetan, parte hartze hori erraztuko duten bide, gune eta uneak zehaztuz, beraien atxikimendua areagotzeko.	Zuzendaritza taldea Guraso elkartearekin bildu da gutxienez hiruhilekoan behin.	X	X	X	X
			Familia eta ikasleentzako interesgarria izan daitekeen informazioa eta komunikazio bideak eskaintzen dituen Webgunea martxan dago.	X	X	X	X
			Familientzako formakuntza-programan gutxienez familien %10ak parte hartu du.	X	X	X	X
			Ikasleek haien proposamenak, kexak eta zalantzak jasotzeko irekitako prozedurak jarraitu dituzte.	X	X	X	X

2024-2028 AGINTE KOADROA

	Konpetentziekin lotura	Helburuak	LORPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
				24-25	25-26	26-27	27-28
H5	K7.1. Ikastetxeko elkarbizitza helburuen jarraipen sistematikoa egin. K7.2. Elkarrekiko errespetuan, lankidetzan, tolerantzian eta enpatian oinarritutako eskola-giroa sortu. K7.3. Gatazkei ikuspegi eraikitzailetik erantzun eta prebentzioari lehentasuna ematen zaiola ziurtatu.	Bizikidetza hobetzeko ekintzak garatzea, ikuspegi hezitzailetik abiatuz, institutua denontzako espazio segurua eta errespetuzkoa izan dadin.	Maila guztientzako tutoretza planak sortu eta driven bidez partekatu dira tutore eta orientatzaileekin.	X			
			Tutoretza planak ebaluatu, moldatu eta partekatu dira		X	X	X
			Beurko txikiko patioen dinamizazio jarduerak burutu dira, gutxienez asteko 2 egunetan.	X	X	X	X
			Zikloen arteko harremanak sortu eta indartzeko jarduerak antolatu dira kurtsoan zehar (gabonak, inauteriak, Agate Deuna...), planifikazioan ahal den heinean ikasleen ekarpenak eta laguntza jaso direlarik.	X	X	X	X
			Gatazkei erantzuteko neurrien bilduma edota aplikazio gida klaustroan adostu eta AJA-n jaso da.	X			

2024-2028 AGINTE KOADROA

	Konpetentziekin lotura	Helburuak	LORPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
				24-25	25-26	26-27	27-28
H6	K2.2. Ikaslea erdigunean izango duen antolaketa-eredu inklusiboa definitu. K3.2. Ikasleen konpetentzien garapenaren jarraipena egiteko ebaluazio-hezitzailea sustatu K3.3. Curriculumaren ikuspegi pedagogiko bateratua hedatu. K3.5. Hezkuntza Proiektuak eratorritako ikastetxeko ardatzak (berdintasuna, hizkuntza, jasagarritasuna...) ikas-prozesuetan integratu.	Curriculum berriak eskatzen dituen egokitzapenak gauzatzea, irakasleen arteko eztabaida pedagogikoa sustatuz, ikasleei erantzun egokia eman ahal izateko.	Arlo bakoitzaren didaktikan erreferente diren irakasle eta elkarteen lanak aztertu eta horien inguruan hausnartzeko saioak burutu dira mintegi guztietan gutxienez ikasturtean behin.	X	X	X	X
			Arlo, mintegi edota eremuetan ikuspegi pedagogiko bateratua bermatzen duten eztabaidak gauzatu dira eta adostutako neurriak eta irizpideak urteko programazioetan txertatu dira.	X	X	X	X
			Arlo, mintegi edota eremuetan sortutako baliabideak partekatzeko gordailu digitalean mintegi guztietako materialak jaso dira: - Oinarrizko jakintzen sekuentziazioa - Ebaluazio eta kalifikazio irizpideak - Promoziorako irizpideak - Berreskurapen prozedura	X	X	X	X